



Oñatiko EH BILDU eta EAJ UDAL TALDEAK Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

### **Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan mozioa**

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoez, indarrean dagoen legeriaren babesean, bere eztabaidarako eta onespenerako hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrak 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebellian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari prestigiotsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrak egunero Herri Saharra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko úrtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako

ERABAKIAK hartu ditu:

1. Hassanna Aaliari sostengua eta elkartasuna adieraztea.
2. Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea eta Hassanna Aliaren asilo eskaera berriz aztertzea eskatzea.
3. Marokoko Gobernu Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea.

Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.

4. Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

5. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

a. ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

b. ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

c. KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

d. ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

e. NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

f. ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN:

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

g. EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI.

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

h. EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI.

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

i. MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

Oñatin, 2015eko urtarrila”